

**Tokiko ekoizpenaren aldeko konpromisoa indartu du**

## **EROSKI-K 116 MILIOI EURO BAINO GEHIAGOREN EROSKETAK EGIN DIZKIE NAFARROAKO HORNITZAILE KOMERTZIALEI 2024KO LEHEN SEIHILEKOAN**

- **Nafarroako 176 hornitzaile komertzialekin lan egiten du, eta haien 3.000 produktu baino gehiago merkaturatzen ditu**
- **EROSKIk lehen sektorearen iraunkortasunean laguntzen du, eta hitzarmenak ditu Nafarroako nekazaritzako elikagaien arloan diharduten elkarte ugariarekin**
- **Horietatik %85 nekazaritzako elikagaien tokiko ekoizleak dira, 150 guztira, eta EROSKIk 1.701 produktu erosi zizkien 46 milioi eurotan**

**Iruñea, 2024ko urriaren 11.-** [EROSKIk](#) 116 milioi euro baino gehiago erabili zituen Nafarroako hornitzaile komertzialei tokiko produktuak erosteko 2024ko lehen seihilekoan. EROSKIk Nafarroako 176 hornitzaile komertzialekin lan egiten du, eta haien 3.000 produktu baino gehiago merkaturatzen ditu. Produktuok toki nabarmenduak dituzte dendetan, batez ere sasoian sasoiko frutek, berdurek eta barazkiek.

Kooperatibaren Zurekin eredu komertzialak sendo egiten du tokiko janarien alde, eta dibertsitate handiko ehun produktiboa bultzatzen du, giltzarri baita sektorearen iraunkortasunerako eta ekonomiarako, kulturarako eta paisaiarako berak diharduen inguruneetan.

Hornitzaile komertzial guztietatik %85 nekazaritzako elikagaien tokiko ekoizleak dira, guztira 150, eta horiei 1.701 produktu erosi zizkien 46 milioi eurotan urteko lehen seihilekoan.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko  
zuzendaria  
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Tokiko produktuen erosketa horietatik, gehien igo diren produktuak dira kontserbako zainzuriak, %51 gehiago aurreko urteko epe berarekin alderatuta, fruta, %47, kontserbako piperrak, %11,4, esnea, %8,7, eta haragia, %6.

*"Kategoria horiek geure markan txertatzeak eta horrekin batera sustapenek eta aurreztearen aldeko apustuak, klima hobek eta kontsumo ohituren aldaketek lagundu dute kategoria horien aldeko eboluzioa",* adierazi du EROSKIren Tokiko Produktuen zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

### **Lankidetzaren hitzarmenak**

Tokiko ekonomiaren alde inguruneko ekoizleekin egiteko apustu horretan, hitzarmenak eginak ditu, hala berean, sektoreko erakundeekin eta nekazaritzako elikagaien arloko elkarrekin.

EROSKI lankidetzaren hitzarmenak ditu Nafarroako beste jatorri izen batzuekin -- besteak beste, Nafarroako Olio, Erronkari eta Idiazabal gaztak-- eta adierazpen geografiko babestuekin: Nafarroako Txahala, Nafarroako Axuria eta Nafarroako Patxarana. Kontsumitzaileak bestelako ziurtagiriak dituzten produktuak ere aurki ditzake EROSKIren dendetan, hala nola Nafarroako artisauen elikagaiak, ekoizpen ekologikoa eta ekoizpen integratua.

Nabarmentzen diren artean, azpimarratzekoa da lanean ari dela Teknologia eta Azpiegitura Agroalimentarioetako Nafarroako Institutuarekin (INTIA), bertako produktuak Reyno Gourmet markarekin sustatzeko; marka horren 450 erreferentzia merkaturatzen ditu. Reyno Gourmet marka 2007an sortu zen, eta, 2010. urtean, lankidetzaren estua abiatu zen EROSKIren eta INTIAREN artean, egundaino dirauena. Horrekin batean, hitzarmena egin du [UAGNekin](#) (Nafarroako Nekazari eta Abeltzainen Batasuna), tokian tokiko produktuak saltzen laguntzeko: zainzuriak, orburuak, piperrak, txahal haragia, arkumea, gaztak, ardoak...

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko  
zuzendaria

PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Era berean, [Nafarroako Kluster Agroalimentarioan](#) parte hartzen du (Nagrifood); kolektibo bat da, sektore askotako korporazioekin osatua, eta horren helburua da Nafarroan nekazaritzako elikagaigintzan dihardutenak lerrokatzea Europako berritasun eta jasangarritasun politikekin.

### **Tokiko hornitzaileei lagun egiteko programa**

EROSKIk joan den ekainetik tresna bat du Nafarroako nekazaritzako elikagaien ekoizleen zerbitzuko. Tresna horiekin, ingurumenaren, gizartearen eta gobernu korporatiboaren alde egiten dutena ebaluatzeko modua izango dute enpresek, ESG irizpideak aintzat hartuta.

Aurreneko fasean den proiektu honen bitartez, sei alderdi ebaluatuko zaizkie Nafarroan nekazaritzako elikagaiak ekoizten diharduten 120 bat ekoizle txikiri, eta alderdi horiek hobetzeko behar dituzten tresnak emango zaizkie. Helburu nagusiak hauek dira: EROSKIren ingurunean diharduten tokiko ekoizleen enpresak gehiago ezagutzea eta konpromisoa areagotzea; prestakuntza eta babes ematea etengabe hobetzen joan daitezen, produktuen kalitatea handitzen eta ingurumen eta gizarte arloetan portaera hobetzen laguntzea eta gidatzea, eta hornidura katean gardentasun handiagoa lortzea.

### **EROSKI Nafarroan**

EROSKIk 103 saltoki ditu guztira foru erkidegoan, hala nola hipermerkatuak eta supermerkatuak, propioak nahiz frankiziatuak eta cash&carry-ak; eta horietaz gain gasolindegia, optikak eta kirol ekipamendurako dendak, baita online supermerkatua ere. EROSKIren hemengo langile taldea 1.462 lagunez osatua dago. EROSKI Clubek 310.000 bezero-bazkide baino gehiago ditu Nafarroan.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko  
zuzendaria  
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)